

PANTAIEN ERABILERARI BURUZKO FORMAZIOA

HITZALDI-SOLASALDIA HH-LH3 GURASOENTZAT

Azken urteotan pantailen erabilera asko igo da eta Coronavirusak ekarri zuen konfinamenduak egoera larritu egin du biziki: Interneten erabilera %60a igo zen helduongan konfinamenduaren eraginez eta gazteengan egoera %180koa izan da.

Pantailek denongan duten eragina beldurgarria da, gero eta ikerketa gehiagok arreta hor jarri behar dugula agerian uzten dute. Eta haurren kasuan, egoera bereziki larria da, hazten ari diren ume horien garapenean pantailen eragina hondatzailea da eta.

Horregatik, garrantzitsua da informazioa jaso, kontzientzia piztu eta erabakiak hartzen joatea. Gure txikien ongizatea gurasoen ardura da.

Guzti honi heltzeko, hitzaldi-solasaldi bat eskainiko dugu HH-LH3 bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat ondokoak lantzeko:

- Hausnarketa bultzatuko dugu pantailen erabilpenaren inguruan eta helduok haiekin dugun harremanari erreparatuko diogu.
- Pertsonarengan eta bereziki haurrengan pantailek duten eragina ikusiko dugu, zientziak zer dioten azalduaz.
- Baliabideak emango ditugu guzti hau etxean nola kudeatu daitekeen ikasteko.
- Kontzientziazioa piztuko dugu: gure hurrek, txikitatik, teknologiarekin garatzen hasten diren harreman horretan gure arreta jarriaz eta era osasuntsu batean bideratuaz.
- Sakelekoaren berezitasunei buruz ere arituko gara. Zarautzeko esperientzia (“Gure aukera, guk 16”) azalduko dugu eta baita Udarregi Ikastolan martxan jarri den “Mugi gaitezen, batu gaitezen” ekimena.
- Bukaeran solasaldi irekia eskainiko dugu, gurasoen izan ditzaketen galdera eta kezkei erantzuteko eta baita bizipenak elkarbanatzeko.

FORMAZIO SAIOAK IKASLE ETA FAMILIEKIN I

Adin batetik aurrera eta gaia osotasunean lantzeko, formazioa ikasle eta familiek egitea proposatzen da; mezu bateratua jasotzen dute eta familia bakoitzean elkarrizketa eta hausnarketa sustatzen da.

- **LH4 ETA LH5 MAILAKO IKASLEENTZAT:**

Gela bakoitzean, mugikorra, Internet, online jokoak eta Sare Soziales inguruan hausnarketarako hitzaldi-solasaldia egingo dugu. Kasu erreal ezberdinen aurkezpena egingo da eta ikasleen partehartzea bultzatuko. Edukiak maila bakoitzera egokitzen dira eta formakuntza mailakatu eta osagarria da.

Helburua: Internet eta pantailen arriskuez eta erabilpen egoki baten garrantziaz kontzientzia hartzea.

- **LH4 ETA LH5 MAILAKO GURASOENTZAT:**

Mugikorrek –Smartphonek- eta Internetek dituen onurak eta arriskuak ikusteko. Aurretik ikasleekin egindako saioetatik ateratako komentario eta ondorio garrantzitsuenak ere azalduko dira; gurasoek bere seme-alabak nondik nora dabiltzan ezagutu dezaten.

Helburua: hausnarketa lan bat egitea kontzientziarioa sustatu, praktika onak zeintzuk diren ezagutu eta gure gazteak ze puntutan dauden jakitea.

LH4 FAMILIAK: URRIAK 4

LH5 FAMILIAK: URRIAK 11

FORMAZIO SAIOAK IKASLE ETA FAMILIEKIN II

LH6-ko ikasleekin formazioa sakonagoa egitea proposatzen da, adin hau klabea baita. Horretarako, 4 saio antolatuko dira gela bakoitzean aurrera eramateko:

1. SAIOA IKASLEEKIN “KONTZIENTZIAZIOA ETA HAUSNARKETA”:

Aurreneko saio honetan, pantaila ezberdinen erabileraren inguruan hausnarketa egingo dugu (mugikorak, tabletak, ordenagailuak, telebista). Gailu elektronikoek eta Internetarako sarbideak sortzen digun menpekotasunean jarriko dugu indarra, pertsonarengan sortu daitezkeen arazoetan (FOMO, autoestima baxua, isolamendua, depresioa, ...) eta baita gure bizieran eta harremanetan duten eraginaren inguruan arituko gara.

Bideo-jokoak, Sare Sozialak, bideoak, komunikatzeko plataformak ... pantailekin egiten dugun erabilera hausnartu eta kasu praktikoak jarriko ditugu erabilera egoki bat bermatuko duten erabaki konkrituak hartzeko gonbidapena luzatuaz.

Helburua: Menpekotasuna eta erabilpen egoki baten garrantziaz kontzientzia hartzea eta erabaki konkrituak hartzea.

2. SAIOA IKASLEEKIN “SARE SOZIALAK”:

Saio honetan, Sare Sozialek gure bizitzetan duten presentziaz eta eraginaz arituko gara ikasleekin; zer nolako harremanak ditugu (bizitza “fisikoa” vs “online” bizitza), ze arrisku konkritu daude, zer da “postureoa-itxurakeria” eta zer dago horren atzetik, nola manipulatu gaituzten Sareek, neska eta mutilen rola zein den aztertu eta kritikatu dugu... Dinamika ezberdinak egingo ditugu guzti hau ikasleek bizitzeko, sentitzeko.

Helburua: Sare Sozialen eraginaz kontzientzia hartzea eta hauek modu egoki eta kritiko baten erabiltzeko baliabideak izatea.

3. SAIOA IKASLEEKIN– “BIDEO-JOKOAK, YOUTUBE ETA TWITCH”

Bideo-jokoek sortzen duten menpekotasunari buruz arituko gara, gure bizitzetan duten eraginaz, dituzten arriskuez hitz egingo dugu (adibidez, online-apusturako hazia dira), bere erabilpenarekin zer bilatzen dugun hausnartuko dugu... Youtube eta batez ere, Twitch bezalako plataformen arriskuez jardungo gara, menpekotasuna sortzeko erabiltzen dituzten trikimailuen inguruan solasaldia irekiko dugu.... Dinamika ezberdinak egingo ditugu guzti hau ikasleek bizitzeko, sentitzeko.

Helburua: Bideo-jokoen eraginaz kontzientzia hartzea eta hauek modu egoki eta kritiko baten erabiltzeko baliabideak izatea.

4. SAIOA IKASLEEKIN – “INTERNETEKO ARRISKUAK”:

Aurreko saioetan, pertsona, menpekotasuna, erabilpena eta harremanetan jarri badugu fokoa, azken saio honetan, sarean egon daitezkeen arriskuez hitz egingo dugu eta garrantzitsuena: nola babestu haietaz. Beldurretik joan gabe, Interneten ibiltzeak sortu ditzakeen arriskuak presente izan behar ditugu; errealak direla adierazi ikasleei, batzuetan sarean bizi dena “erreal” ez dela pentsatzen dute eta bertan esaten denaren ondorioetan pentsatzen ere lagunduko diegu.

Helburua: ikasleak arriskuez kontziente izatea eta bere burua eta lagunak babesteko baliabideak izatea.

LH6-ko gurasoekin formazioa: AZAROAK 15 eta AZAROAK 29

1. SAIOA GURASOEKIN – KONTZIENTZIAZIOA ETA HAUSNARKETA

Ikasleekin aurreneko bi saioak egin eta gero, haien gurasoekin gauza bera egitea proposatzen da: gurasoei ere, pantaila ezberdinen erabilaren inguruan hausnarketa bultzatuaz; heldu bezala, norberak ze erabilpen egiten duen pentsarazi, kontzientzia piztu eta erabaki batzuk hartzera animatuko zaie. Helduok eredu gara eta pausua gu geuk eman beharra dugu lehenik, gero seme-alabei aldaketak eskatzen hasteko. Horretaz gain, bere seme-alabak ze puntutan dauden jakinaraziko zaie eta geletako saioen ondorioak ere azalduko zaizkie. Baita etxean aplikagarri izango zaizkien baliabideak eman ere.

Helburua: Heldu bezala, hausnarketa sakona egitea eta erabaki pertsonalak hartzea erabilpen egoki bat lortzeko.

2. SAIOA GURASOEKIN – SARE SOZIALAK ETA INTERTENETEKO ARRISKUAK

Kasu honetan, ikasleekin izandako 3. Eta 4. saioen ondoren, gurasoen txanda izango da. Helduon erabilpenean jarriko dugu fokoa, norberaren hausnarketa eta erabakihartzea bultzatzeko. Hemen ere, ikasleekin landutakoa gurasoei azalduko zaie, laburpen-gisa maila bakoitzeko egoera zein den jakin dezaten eta horren arabera, erabakiak har ditzaten. Ikasleekin bezala, Internetek dituen arriskuez hitz egingo dugu gurasoekin eta haietaz nola babestu daitezkeen azalduko zaie.

Helburua: Sare Sozial eta bideo-jokoaren eraginaz kontzientzia hartzea, Interneteko arriskuez jabetzea eta erabilera egoki eta seguru bat izateko hartu beharreko neurriak martxan jartzeko baliabideak garatzea.